



## NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUA NAZIOARTEKO ADOPZIOA

Unai BELINTXON MARTIN

**AURKIBIDEA. I. Nazioarteko adopzioaren egungo irizpide eta ezaugarri orokorrak.** 1. Adopzioa internalizatzeko arrazoiak. **II. Nazioarteko adopzioaren araubide juridikoa Espainian.** 1. Nazioarteko adopzioaren kontzeptua. 2. Ibilbide legala nazioarteko adopzio-rantz. 3. Nazioarteko adopzioa baldintzatzen edota deuseztatzen dituzten egoerak. 4. Espainiako autoritateek eraturiko nazioarteko adopzioaren tramiteak baldintzatzen duten egoera. 5. Espainiako epaileak Espainian eraturiko nazioarteko adopzioa. Fase administratiboa: adopzio aurreko fase administratiboa. Aurre proposamena eta egokitasun adierazpena. **III. Espainiako auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala. Adopzioaren eratzea.** 1. Nazioarteko kasuetan adopzioa eratzeko nazioarteko eskuduntza judizialaren foruak. 2. Espainiako auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala: adopzioaren baliogabetasuna, bihurteta eta aldaketa. **IV. Nazioarteko eskuduntza judiziala eta kontsul-adopzioa.** 1. Kontsulek nazioarteko adopzioetan erabili ohi dituzten irizpideak. **V. Nazioarteko adopzioari aplikagarri zaion Legea.** 1. Adopzioaren eratzea Espainiako Lege materialean oinarrituz (18. art). 2. Arau orokorraren salbuespenak. 3. Nazioarteko adopzioaren lege aplikagarria. Atzerritar legearen ezarpena. 4. Egoera bereziak. **VI. 1993ko Hagako Hitzarmena: datu orokorrak eta instrukzio prozedurak.** 1. Nazioarteko adopzioak eta 1993ko Hagako Hitzarmena. Nazioarteko adopzio aurreko administrazio-prozedura. 2. Nazioarteko adopzioak eta 1993ko Hagako Hitzarmena. Nazioarteko adopzioaren lurraldez kanpoko baliagarritasuna. **VII. Atzerritar autoritateen aurrean eraturiko adopzioen baliagarritasuna Espainian. Atzerritar adopzioen baliagarritasuna: 1993ko Hagako Hitzarmenaren araubidea.** 1. Atzerritar adopzioen eraginak Espainian. 2. Atzerritar adopzioen eragina Espainian. Nazioarteko Aldebiko Hitzarmenak. 3. Atzerritar adopzioen eragina Espainian. Barne produkzioko araubidea. **VIII. Adopzio loturen eraginak.** 1. Espainian baliagarri den nazioarteko adopzioen eragin juridikoak: 1996ko Hagako Hitzarmena. 2. Beste eragin legalen artean ondorengoak nabarmendu genitzake.

### I. Nazioarteko adopzioaren egungo irizpide eta ezaugarri orokorrak

Nazioarteko Zuzenbidean adopzioa konplexua den gaia dugu, beste hainbat arlotan bezala ezaugarri psikologiko eta kulturek materia honen arautze juridikoan eragiten baitute.

*Ezaugarri psikologikoak:* adopzioak adoptatua den eta adoptatzen duen pertsonengan inpaktu psikologiko handia dakar.

*Ezaugarri kulturala:* nazioarteko adopzioak, kasu askotan, lehen munduan deiturikoan bizi diren pertsonak adoptatzeko helburuarekin garapen maila baxuago batera jotzea dakar. Kasu hauetan herrialde eta kultura talkak eman daitezke bizitza modu anitz eta ezberdinetan ulertzen baita. Gainera, baliteke kultura ezberdintasun horrekin bi aldean (adop-tatua eta adoptatzen duenaren) arteko lotura eta elkarbizitza porrot egitea.

Guzti hau aintzat harturik Zuzenbide konparatu materian **adopzio eredu ezberdinak** daudela kontuan izan behar dugu. Alegia, ez dago munduko Estatu guztientzako baliagarria den adopzio kontzeptu bakar eta egoki bat, European ere ez dago adopzio hitzaren definizio bateraturik. Honela gaur egun adopzio mota ezberdinak aurki ditzakegu:

(1) *Sare-publikoko adopzioak:* Mendebaldeko herrialde askotan, Espainia kasu, adopzioa adingabekoaren babeserako instituzio bilakatu da. Honek hainbat ondorio dakar: a) Adopzioaren erregimen juridikoa adingabearen interesaren printzipioaren inguruan oinarritzen da. b) Adopzioaren inguruko tramite guztiak autoritate publikoen kontrolpean jorratu



behar dira. Ordea, kontrol administratibo eta konstituzionala egon arren (Espainiako Konstituzioko 38. art), nazioarte mailan adingabeen salerosketa kasuak ugariak dira.

**Espainiako Konstituzioko 38. artikulua:** 1. Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute. 2. Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik jatorria alde batetara utzi, eta hauen amena berauon egoera zibila edonolakoa izanik. Legeak oportunitatuko du aitatasunaren ikerketa. 3. Gurasoek era guztietako laguntza eskaini behar diete semealabei nahiz ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan, haien adingabezaroan eta beste kasuetan legalki eratorritzen denean. 4. Umeei nazio arteko akordioetan beraien eskubideen alde beilatzen den alde, aurretik ikusitako babesaz gozatu dute.

c) Adopzioa bi aldeen arteko (adoptatzen duen eta adoptatuaren familiaren arteko) negozio juridiko pribatua izateari uzten dio. d) Nazioarteko adopzio kasuetan, hauek kontrolatzeko Adingabeen Babeserako Zuzenbide Administratiboak autoritateen arteko nazioarteko kooperazioa edo lankidetzak martxan jarri du.

(2) *Adopzio pribatua:* Zenbait herrialdeetan, Ameriketako Estatu Batuak kasu, adopzioa ama biologiko eta adoptatuko duten gurasoen arteko akordio pribatu bat da. Behin kontratua burutu denean, kontratua autoritate administratibo edo judizialen aurrean balio-tzen delarik. Adopzio pribatu mota hau bere azkartasunagatik, gurasoek zein seme-alaba adoptatuko duen aukeratzeko askatasunagatik, eta guraso biologikoentzat dakarren diru-sartze handiagatik bereizten da.

(3) *Adopzio-kontrakoa:* Beste herrialde batzuk ordea adopzioaren kontrako jarrera dute, orokorki herrialde musulmanek. Aipatzekoa da Koranak adopzioa debekatzen duela. Herrialde hauetan, guraso edo tutorerik gabeko adingabeak Kafala figura juridikoaren bitartez babesten dira. Beste herrialde batzuk berriz, ez dute adopzioa debekatzen, baina irudi juridiko hori ez dute ezagutzen (afrikar hainbat herrialde besteak beste).

## 1. Adopzioa internalizatzeko arrazoiak

(1) *Gerra edota gudetako umezurtzak:* nazioarte mailan zein nazio barnean ematen diren gatatzka armatuek umezurtz asko uzten dituzte, bereziki gaur egun ahazturiko gudak deituriko horietan, edota Afrikar kontinentean ematen diren gatatzka armatuetan. Ildo honetatik SESBa erori zenean sortu edo ekarritako umezurtz talde handiak aipa genitzake.

(2) *Mendebaldeko jaiotza tasaren beherakada eta hirugarren munduan deituriko herrialdeen gehiegizko populazioa:* Espainian nazioarteko adopzioa hainbat arrazoi direla bide areagotu da: populazioaren hazkuntza negatiboa, eta hirugarren mundu bezala deitzen diegun herrialdeen jaiotze tasa handiak eta pobrezia maila ikaragarriak adoptatzeko garaian ez hain garrantuak dauden herrialdeetara jotzeko joera dago. Hala ere, kritika moduan herrialde barneko adopzioak nazioarteko adopzioekin konparatuz oso baxuak eta txikiak direla esan behar dugu, nazio barnean haurren desbabesa egoerak ematen direla kontuan izanik. Gure herrialdean desbabesa bizi duten haurrak egon arren, egun askok dira adoptatzeko Errusia, Ukraina, Txina, Kolonbia edo Etiopiara joan nahi eta ohi direnak.

## II. Nazioarteko adopzioaren araubide juridikoa Espainian

Egun Espainian ditugun nazioarteko adopzioaren arauak hainbat arau taldeen bitartez osatzen dira.

(1) *Barne produkzioko arauak:* Nazioarteko adopzioen inguruko abenduaren 28ko 54/2007 Legeak honako gaiak arautzen ditu:

- Nazioarteko adopzioak eratzeke nazioarteko eskuduntza judiziala
- Nazioarteko adopzioei aplikagarri zaien legea



- c) Atzerrian eginiko nazioarteko adopzioak Espainian dituzten eragin juridikoak
- d) Nazioarteko adopzioetan babes materialaren eskumena duten entitate publikoen esku-hartzea
- e) Nazioarteko adopzioan kolaboratzen duten entitateen esku-hartzea eta berezko funtzioak
- f) Nazioarteko familia-harreraren kasuetarako erregimen juridiko eta adopzioetik kanpo geratzen diren adingabeen beste babes neurri batzuk

(2) *Nazioarteko tresna legalak*: Espainian nazioarteko adopzio materiaren inguruko nazioarteko tresna juridiko ezberdinak daude indarrean. Besteak beste, arautegi nagusien artean honakoan aurki ditzakegu:

- a) Nazioarteko adopzio materialaren haurraren babesaren eta kooperazioaren inguruko 1993ko maiatzaren 29ko Hagako Hitzarmena.
- b) 1989ko azaroaren 20ko, haurraren eskubideen Nazio Batuen Hitzarmena, Nueva York. Hitzarmen honek parte diren Estatuari hainbat jarraibide ematen die nazioarteko adopzioen inguruan. Era berean, 20.3 artikulua oinarritzeko printzipio bat jasotzen du, non bere familiatik at dauden haurrak zaintza zehatz batzuk jasotzeko eskubidea finkatzen ditu, hala nola: zaintza etxeak deiturikoetan sartzea, zuzenbide islamiarreko Kafala, adopzioa, edo beharrezkoa izanez gero, adingabeen babeserako instituzio berezietan sartzea.
- c) Estrasburgoko 2008ko azaroaren 27ko adingabeen adopzio materiako Europar Hitzarmena, Espainian 2011ko irailaren batean indarren jarri zena. Hitzarmen honek Zuzenbide materialeko xedapenak helburu zehatz batekin biltzen ditu: beren barne legeen artean eman daitezkeen zailtasunak murrizten lagundu, eta era berean, haur adoptatuen interesak sustatuz. Adingabe adoptatuen babes sistema legala bermatu eta areagotu nahi du, bai maila nazionalan, baita internazionalan ere.

(3) *Araudi autonomikoa*: Nazioarteko adopzioaren inguruko araudi autonomikoa ugaria da. Adingabeen babeserako entitate publiko Autonomikoen egiaztagiri, funtzionaltasun eta kontrolerako baldintza ezagugarriak arautzen ditu, baita nazioarteko adopzioetako adoptatzaileen egokitasunaren adierazpena ere. Behin hau esanda, kontuan izan erkidegoek ez dutela nazioarteko adopzioen inguruko nazioarteko Zuzenbide pribatuko kasuak arautzeko eskumenik, ondorioz, ondorengo kasuetan ere ez dute eskumenik izango: a) Nazioarteko eskuduntza judiziala; b) Lege aplikagarria; c) Atzeritar erabakien mugaz arandiko baliagarritasuna.

## 1. Nazioarteko adopzioaren kontzeptua

2007ko nazioarteko adopzioaren inguruko legeak honela definitzen du: *“aquella en la que un menor considerado adoptable por la autoridad extranjera competente y con residencia habitual en el extranjero, es o va a ser desplazado a España por adoptantes con residencia habitual en España, bien después de su adopción en el Estado de origen, bien con la finalidad de constituir tal adopción en España”*. (1.2 art, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legeagatik eraldaturiko artikulua).

Ikusi dezakegun moduan nazioarteko adopzio kontzeptua oso zabala da, atzeritar elementuaren tesia jarraitzen duena, alegia, espainiarra ez den elementu bat izatearekin aski da nazioarteko adopzio bezala izendatzeko. Era berean, adoptatzaile eta adoptatuaren artean lotura juridiko bat eskatzen da. Gainera kontuan izan nazioarteko adopzioaren definizioak adingabe zein adin nagusien adopzioa estaltzen dituela.



## 2. Ibilbide legala nazioarteko adopzioerantz

Nazioarteko adopzio bat emateko hainbat bide edo ibilbide aurki ditzakegu:

(1) *Espainiako autoritate batek eraturiko adopzioak*: Adopzio bat Espainiako autoritateen aurrean premiatzeko hainbat fase gainditu behar dira: a) Aurretik egiten den fase administratiboa (autoritateek adoptatzaileen egokitasuna ikusten dute eta adopzioerako proposamena egiten du); b) Fase judizial osagarria (garrantzi handiko fasea da, Espainiako epaileak adopzioa eratzten du); c) Adopzioa Erregistro Zibilean izena emateko fasea (adopzioa eratzten duen espainiar ebazpen judiziala Espainiako Erregistro Zibilean aurkezten da).

(2) *Espainian hasi den baina atzerritar autoritateek eraturiko adopzioak*: Ohikoa den adopzio modu bat da, batez ere adopzio gehienak atzerrian egiten direla jakinik. Faseak honakoak dira: a) Fase administratibo espainiarra (adoptatzaileek Espainiako autoritate administratiboetara jotzen dute egokitasun agiria lortzeko. Behin hau eginda lankidetzaren administratibo tresnen bitartez adingabea bizi den Estatuko autoritateei igortzen zaie); b) Atzerritar fase administratiboa (atzerritar administrazioak Espainiako administrazioaren espedientea jaso ostean, aurrera joan ezker, proposaturiko adoptatzaileei adingabe bat egokitzen diete); c) Adopzioaren egokitzapena atzerritar herrialdean (atzerritar autoritate kompetenteek beren barne arau juridiko eta nazioarteko Zuzenbide pribatuko arauak oinarri izanik adingabearen adopzioa egokitzen dute); d) Adopzioa Espainiako Erregistro Zibilean izena emateko fasea (Behin atzerrian adopzio ondo finkatuta, adoptatzaileek Espainiako Erregistro Zibilean islatu behar dute).

(3) *Soilik atzerritar autoritateek eraturiko adopzioak*: Honako kasuak gehiengoetan adingabea adopzio espediente inguruko lankidetzaren eskumenak banatzeko Espainiarekin nazioarteko Hitzarmenak ez dituzten herrialdeetan aurkitzen denean ematen dira. Lan faseak: a) Espainiar egokitasun ziurtagiriaren lorpena (Adoptatzaileek Espainiako autoritateei egokitasun ziurtagiria eskatzen diete); b) Adopzioaren eratzeta atzerritar herrialdean (adoptatzaileek adingabea aurkitzen den atzerritar herrialdera mugitzen dira, eta bertan beharrezkoak diren tramite administratibo edota juridiko guztiak jarraitu eta aurrera eramaten dituzte adopzioaren egokitzapena lortu arte); c) Nazioarteko adopzioaren onarpena Espainian eta Espainiako Erregistro Zibilean izen ematea (behin atzerritar herrialdean nazioarteko adopzioa egokituta Espainiako Erregistro Zibilean izena eman behar da).

(4) *Atzerrian adoptatua izan den adingabearen sarrera Espainian*: Adingabearen eragiten duten atzerritar elementu eta ezaugarri hauek kontuan izan behar ditugu, besteak beste:

- a) Espainian sartzeta: Espainia sartzeko baimena izateko, atzerritar subjektuak espainiar atzerritartasun legeria bete behar du: (a) Adoptatua 18 urtetik beherakoa bada, espainiar batengatik adoptatua izan bada, eta adopzioa eman den lekuko espainiar kontsulatu Erregistro Zibilean izena eman bada, adoptatua espainiarra izango da (beraz, espainiarra izanik inork ere ez ezingo dio bisa eskatu Espainian sartzeko); (b) Adoptatua espainiarra ez bada eta adoptatzaileak EBko estatu kide batetako nazionalak ez badira, adopzio hori espainiar adopzio batek duen eragin juridiko antzekoak dituela egiaztatu eta ziurtatu behar da, era berean adopzioa adoptatzaileak nazionalak diren Estatuan onartua dela frogatu behar da. Hau kreditatuz gero, Espainiako kontsulatu etako autoritateek familia-elkartze edo estantziagatik sarrera bisa emango diete Espainian sartzeko; (c) Adoptatua espainiarra ez bada eta atzerritar adoptatzaileak EBko Estatu kide batetako nazionalak badira, adopzioak espainiar adopzio batek duen eragin juridiko antzekoak dituela kreditatu behar da, baita Estatu kide horretan onartu izan dela ere. Estatu kide horrek emandako dokumentazioarekin adoptatua izan den adingabea Espainian sar daiteke.
- b) Atzerritar herrialdetik irtetea: Atzerrian adoptatua izan den adingabea adopzioa eman den herrialdean eskaturiko baldintza guztiak betetzen baditu soilik irtengo da bere herrialdetik: adingabearen pasaportea ematea, mediku egiaztagiria, sententziak



edo adopzioaren ebazpen finkoa, baita beste herrialdeak eskaturiko gainerako egiaztagiri eta dokumentuak ere.

### 3. Nazioarteko adopzioa baldintzatzen edota deuseztatzen dituzten egoerak

Nazioarteko Adopzio Legearen 4. artikulua beste herrialde batetako nazionalak diren adingabeen adopzioak baldintzatzen edota deuseztatzen dituzten hainbat egoera jasotzen ditu.

- Klausula txadarra (Nazioarteko Adopzio Legeko 4.2a artikulua): Ezingo da nazioarteko adopziorik eratu *“cuando el país en que el menor adoptando tenga su residencia habitual se encuentre en conflicto bélico o inmerso en un desastre natura”*. Ikus daitekeen moduan honako artikulua bitartez adingabeen salerosketa ekidin nahi da. Gogora itzazue besteak beste Noe Arka 2007-2008 urteetako ONG frantsesa Afrika Erdialdeko Chad herrialdean, edota Haitiko lurrikara ostean eman ziren adopzio ugariak.
- Adingabea bizi den herrialdearen kontrol falta adopzioan (Nazioarteko Adopzio Legeko 4.2b artikulua): Era berean ezingo da nazioarteko adopziorik eratu *“si no existe en el país una autoridad específica que controle y garantice la adopción”*.
- Nazioarte mailan onarturiko adingabeen adopzioen oinarritzko printzipio juridikoak errespetatzen ez dituzten Estatuak (Nazioarteko Adopzio Legeko 4.2c artikulua): Ezingo da nazioarteko adopziorik eratu *“cuando en el país no se den las garantías adecuadas para la adopción y las prácticas y trámites de la adopción en el mismo no respeten el interés del menor o no cumplan los principios éticos y jurídicos internacionales referidos en el artículo 3”*.

### 4. Espainiako autoritateek eraturiko nazioarteko adopzioaren tramiteak baldintzatzen duten egoerak

Nazioarteko Adopzio Legeko 4.3 eta 4.4 artikulua nazioarteko adopzio orenen tramiteak arautzen dituzte ondorengo baldintzak egiaztatuz:

- Estatuko Administrazio Orokorrak, entitate publikoekin elkarlanean, momentu oro aurreko atalean azalduko baldintzen eraginpean zein herrialde dauden zehaztuko dute, adopzioaren tramitea hasi edo bertan behera utzi behar den erabakiz.
- Espainian denboraldi baterako egonaldia duten programa humanitario baten bitartez babesturik dauden atzerritar adingabeak.

### 5. Espainiako epaileak Espainian eraturiko nazioarteko adopzioa. Fase administratiboa: adopzio aurreko fase administratiboa. Aurre proposamena eta egokitasun adierazpena

Hasiera batetan behintzat, adopzio oro fase administratiboarekin hasten dira. Lehen fase honetan hainbat datu kontuan izan behar ditugu:

- Fase administratiboan egin beharreko ekintzak: Adoptatzaileen egokitasun kontrola guraso-aginterako; Adopzio aurretik sortu behar den proposamen administratiboa, bertan epaileari adingabe zehatz baten adopzioa iradokitzen zaio.
- Izaera administratibo deszentralizatua: Honako fasea administrazio mailakoa da soilik, Nazioarteko Adopzio Legeak zenbait oinarritzko arau zehazten ditu, eta erkidegoek garatzen dituzte.
- Administrazio eskuduntza: Autonomi Erkidegoetako autoritate administratiboek nazioarteko adopzio baten aurre proposamen bat hasi dezakete, horretarako esku-mena baitute.



- d) Fase administratibo honen beharra: Espainiako auzitegietan eratzten diren adopzio orok fase honetatik pasatzea beharrezkoa izango dute. Atzerritar legeetatik arautzen diren adopzioak barne.

### III. Espainiako auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala. Adopzioaren eratzea

Eskumena duen Espainiako entitate publikoak eginiko aurre proposamena igorri ostean, nazioarteko adopzioan eskuduntza duen Espainiako epaile baten bitartez eratu da.

#### 1. Nazioarteko kasuetan adopzioa eratzeko nazioarteko eskuduntza judizialaren foruak

Espainiako auzitegi eta epaitegiek adopzioa eratzeko eskumena izango dute, beti ere nazioarteko eskuduntza judizialeko ondorengo foruak ematen badira: 14. artikuluan bilduta dauden foruak hain zuzen ere (zabalak dira eta beti adingabea babesten saiatzen dira):

- Adoptatuko den adingabearen espainiarra denean edota ohiko bizilekua Espainian dagoenean.
- Adoptatzaileak espainiarrak direnean edota ohiko bizilekua Espainian dutenean.

**Nazioarteko Adopzio Legeko 14.1 artikulua:** 1. *Con carácter general, los Juzgados y Tribunales españoles serán competentes para la constitución de la adopción en los siguientes casos: a) Cuando el adoptando sea español o tenga su residencia habitual en España. b) Cuando el adoptante sea español o tenga su residencia habitual en España.*

#### 2. Espainiako auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala: adopzioaren baliogabetasuna, bihurtzea eta aldaketa

(1) *Adopzioaren baliogabetasuna:* Espainiako auzitegiek adopzio baten baliogabetasuna adierazte ahalbidetzen duten nazioarteko eskuduntza judizialaren foruak honakoak dira (15.1 art):

- Eskaera egin den unean adoptatua espainiarra bada eta ohiko bizilekua Espainian duenean.
- Eskaera egin den momentuan adoptatzailea espainiarra bada eta ohiko bizilekua Espainian duenean.
- Espainiako autoritateak eraturiko adopzioa denean.

(2) *Adopzio sinplea adopzio osoan bihurtzea:* Espainiako auzitegiak eskumen osoa dute nazioarte mailako adopzio sinpleak adopzio osoan bihurtzeko, beti ere aplikagarri den legea adopzio sinplearen aukera ahalbidetzen badu, baita ondorengo baldintzak ere betetzen badira:

- Eskaera aurkeztu den unean adoptatua espainiarra bada edo ohiko bizilekua Espainian badu.
- Eskaera aurkeztu den momentuan adoptatzailea espainiarra bada edo ohiko bizilekua Espainian badu.
- Espainiako autoritateak eraturiko adopzioa denean.

Lege honetan ezarritakoaren arabera, eskumena duen atzerritar autoritate batek eraturiko eta Espainiako adopzio legeen eraginpean aurkitzen ez diren adopzio guztiak adopzio sinple bezala ulertuak izango dira.



## IV. Nazioarteko eskuduntza judiziala eta kontsul-adopzioa

Kontsul-adopzioa Espainian oso kritikatu den instituzioa da, kontsulek berez epaile eta auzitegi dagokien esku-hartzea egiten baitu. Irudi juridiko horren justifikazioa adingabearen interesean oinarritzen da, eta honela ikusirik bere logika badu. Dagokion kontsulak herrialde zehatz batetan adingabearen adopzioa emateko kompetentzia badu, adingabeak jatorrizko herrialde hori uztea ahalbidetzen baitu.

### 1. Kontsulek nazioarteko adopzioetan erabili ohi dituzten irizpideak

- Estatu hartzaileak Espainiako kontsulek gaitasun hau izatea ahalbidetu beharko du (1963ko apirilaren 24ko Vienako Hitzarmeneko 5. artikulua).
- Adoptatzailea espainiarra izan beharko da.
- Adoptatuak dagokion kontsularen mugen barnean izan beharko du ohiko bizilekua.

## V. Nazioarteko adopzioari aplikagarri zaion Legea

Nazioarteko Adopzio Legeak arautegi berria biltzen du Espainiako autoritateen aurrean eraturiko nazioarteko adopzioa arautzen duen Legearekin alderatzen badugu. Bere ezaugarri orokorrak honakoak ditugu:

- Adopzioaren eraketa, eraldaketa, baliogabetasuna eta berrikuspenaren lege aplikagarria zehazten da.
- Adingabea gizarteraturik dagoen herrialdeko Legea aplikatzea lortu nahi da. Honek prozedura kostua murrizten du, eta honela adopzioarekin harreman edota lotura gehien duen herrialdearen legeak errespetatzen dira.
- Legeforismo*-ari uko egiten zaio.
- Adopzioa lege estatal bati soilik lotuta geratzea jarraitzen da.

### 1. Adopzioaren eratzea Espainiako Lege materialean oinarrituz (18. art)

Espainiako epailegatik eraturiko adopzioa Espainiako lege materialean oinarrituz arautuko da bi kasutan:

- Adopzioa egiten den unean adoptatuaren ohiko bizilekua Espainian dagoenean.
- Adoptatua Espainiara eraman bada bertan ohiko bizilekua ezartzeko.

Lotura irizpide hau, ohiko bizilekua, gizarte-lotura, erreal eta egungoa izatea nahi da. Alegia, bizi edo biziko den gizarte zehatza eta adoptatuarekin harreman zuzena duen edota izango duena.

**Nazioarteko Adopzio Legeko 18. artikulua:** *La constitución de la adopción por la autoridad competente española se regirá por lo dispuesto en la ley material española en los siguientes casos:*

- Cuando el adoptando tenga su residencia habitual en España en el momento de constitución de la adopción.*
- Cuando el adoptando haya sido o vaya a ser trasladado a España con la finalidad de establecer su residencia habitual en España.*

### 2. Arau orokorraren salbuespenak

(1) *Oinarritzeko araua:* Adoptatuaren ohiko bizilekua etorkizunean Espainian egongo denean adopzioaren eraketari Espainiako legea izango zaio aplikagarri.

(2) *Salbuespenak* (Nazioarteko Adopzio Legeko 19 eta 20 artikulua): Huts egiten duten adopzioak ekidin nahi dira. Hau da, Espainian balio duten adopzioak, baina nazioarteko adopzioarekin lotura duten beste atzerritar herrialdeetan balio ez dutenak saiheztu nahi dira.



Modu honetan, atzerritar lege baten aplikazioaren bitartez Espainian eratu den adopzio bat kasuarekin lotura duten herrialde orotan eragin legala izatea lortzen da.

- a) Lehen salbuespena: Kasu hauetan adoptatuaren gaitasuna eta adopzioan esku-hartzen duten subjektu guztien beharrezko baimenak adoptatuaren lege nazionalaren bitartez arautuko dira eta ez Espainiako legeagatik:
  - a. Adopzioa eratzen den unean adoptatuaren ohiko bizilekua Espainiatik kanpo dagoenean.
  - b. Adopzioarekin adoptatuak ez badu espainiar nazionalitatea bereganatzen, nahiz eta Espainian bizi.
  - c. Artikulu honen lehen paragrafoan azaldutako adoptatuaren lege nazionala ez da aplikagarria izango adoptatuaren nazionalitatea zehaztu gabe dagoenean edo aberrigabea denean.
- b) Bigarren salbuespena: Adopzioa eratzen duen Espainiako epaileak gainera, lege nazionalak edo adoptatu edo adoptatzailearen ohiko bizilekuaren legeak eskaturiko baimenak, audientziak edo onarpenak aurkeztea exiji ditzake (20. art).

**19. artikulua:** *Capacidad del adoptando y consentimientos necesarios.* 1. La capacidad del adoptando y los consentimientos necesarios de todos los sujetos intervinientes en la adopción, se registrarán por la ley nacional del adoptando y no por la ley sustantiva española, en los siguientes casos: a) Si el adoptando tuviera su residencia habitual fuera de España en el momento de la constitución de la adopción. b) Si el adoptando no adquiere, en virtud de la adopción, la nacionalidad española, aunque resida en España. 2. La aplicación de la ley nacional del adoptando prevista en el párrafo primero de este artículo procederá, únicamente, cuando la autoridad española competente estime que con ello se facilita la validez de la adopción en el país correspondiente a la nacionalidad del adoptando. 3. No procederá la aplicación de la ley nacional del adoptando prevista en el párrafo primero de este artículo cuando se trate de adoptandos apátridas o con nacionalidad indeterminada. 4. En el caso de menores cuya ley nacional prohíba o no contemple la adopción se denegará la constitución de la adopción, excepto cuando el menor se encuentre en situación de desamparo y tutelado por la Entidad Pública.

**20. artikulua:** *Consentimientos, audiencias y autorizaciones.* Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 18, la autoridad española competente para la constitución de la adopción podrá exigir, además, los consentimientos, audiencias o autorizaciones requeridas por la ley nacional o por la ley de la residencia habitual del adoptante o del adoptando, siempre que concurren estas circunstancias: a) Que la exigencia de tales consentimientos, audiencias o autorizaciones repercuta en interés del adoptando. Se entenderá que concurre «interés del adoptando», particularmente, si la toma en consideración de las leyes extranjeras facilita, según criterio judicial, la validez de la adopción en otros países conectados con el supuesto y sólo en la medida en que ello sea así. b) Que la exigencia de tales consentimientos, audiencias o autorizaciones sea solicitada por el adoptante o por el Ministerio Fiscal.

### 3. Nazioarteko adopzioaren lege aplikagarria. Atzerritar legearen ezarpena

Nazioarteko Adopzio Legeko 21. artikulua, adopzioa eratzeko garaian Espainiako Legea aplikagarri ez ziren kasuetan zein Lege ezarri behar zen argitzen zuen araua, bertan behera geratu zen 26/2015 Legea indarrean jarri zenean. Alegia, adoptatuaren ohiko bizilekua Espainian ez dagoenean eta Espainiara bere ohiko bizilekua finkatzera ekarriko ez denean, adingabearen adopzioa Lege aplikagarria eskatzen duen gatazka araurik ez da ematen. Adibide moduan, bi espainiar, Cadizeko epaile baten aurrean Marrokon bizi den espainiar adingabe baten adopzioa izan dezakegu.





#### 4. Egoera bereziak

a) Adopzioa debekatzen edo jasotzen ez duen herrialde bateko Legea:

Adoptatuaren ohiko edota etorkizuneko bizilekuko atzerritar herrialdeko Legeak adopzioa debekatzen edo jasotzen ez badu, adopzioa Espainian eratzeari uko egin behar zaio. Adopzioarekin aurrera egiteak beste herrialdeetako eredu eta subiranitasunaren aurka joatea izango litzateke. Kasu honetan atzerritar legegileak bere gizartean egokien iruditzen zaion moduan arautzeko aukera du. Kasu hauetan, adopzioa debekatzen edo jasotzen ez duten lege hauen aplikazioak ez luke Espainiako nazioarteko orden publikoarentzat aurkakotasunik suposatuko. Legegile, eta doktrina eta jurisprudentzia gehiengoarentzat, kasu hauetan ez lirateke adingabearen interesak kaltetuko, alegia, babesturik geratzen direla ulertzen dute.

b) Nazioarteko espainiar orden publikoa:

Zenbait kasutan, atzerritar Zuzenbide edo Zuzenbide nazional batengatik arautua dagoen adopzio batetan atzerritar lege bat aplikagarri izan daiteke. Hala ere, lege hau ezingo da aplikagarri izan naizoarteko espainiar orden publikoaren aurkakoa bada (Nazioarteko Adopzio Legeko 23. artikulua).

**Nazioarteko Adopzio Legeko 23. artikulua:** *Orden público internacional español: En ningún caso procederá la aplicación de una ley extranjera cuando resulte manifiestamente contraria al orden público internacional español. A tal efecto se tendrá en cuenta el interés superior del menor y los vínculos sustanciales del supuesto con España. Los aspectos de la adopción que no puedan regirse por un Derecho extranjero al resultar éste contrario al orden público internacional español, se regirán por el Derecho sustantivo español.*

Alegia, arau honek dioen moduan nazioarteko orden publikoaren inguruko klausula berezi bat biltzen du, Kode Zibileko 12.3 artikuluan zehazturikoa baino osoagoa dena. Logikoki Espainiako orden publikoaz hitz egiten du, eta Nazioarteko Adopzio Legeko arau hau egokiagoa da.

Gainera, Nazioarteko Adopzio Legeko 23. artikulua adingabearen interes gorena eta Espainiarekin egoerak dituen loturak kontuan izatera behartzen gaitu.

#### VI. 1993ko Hagako Hitzarmena: datu orokorrak eta instrukzio prozedurak

1993ko maiatzaren 29ko Hagako Hitzarmena nazioarteko adopzio materian haurren babesa eta lankidetzaz lantzen ditu. Nazioarteko adopzioetan garrantzia handiko nazioarteko tresna juridikoa dugu. Egun herrialde askotan indarrean dagoen hitzarmena da, adingabearen jatorrizko herrialdeetan, zein herrialde hartzaileetan ere. Alabaina, oztupoak aurkitzen dituen hitzarmena da beren Zuzenbide nazionalean adopzioa onartzen ez duten Estatuak ez baitira hitzarmeneko kide, orokorki musulman herrialdeak.

Hagako hitzarmen honek hiru helburu nagusi bilatzen ditu:

- Lehenik eta behin, nazioarteko adopzioak haurren interes gorenean eta nazioarteko Zuzenbideak onarturiko oinarritzko eskubideen errespetuan oinarritzea bermatu nahi du.
- Bigarrenik, adingabeen salerosketa, eta lapurtzea edo bahiketak ekiditeko Estatu kideen autoritateen arteko lankidetzaz sistema sustatu nahi du.
- Hirugarren eta azken helburua, 1993ko Hagako Hitzarmenean agerturikoarekin bat eginez, eraturiko adopzioak parte diren Estatuetan adopzioa ezagutzea eta bere eskubide guztiak bereganatzea bilatzen da.

Hagako Hitzarmena nazioarteko Zuzenbide Administratiboko hitzarmen bat da, parte diren Estaturen administrazio-autoritateen arteko harremanak eta funtzioak arautzen



baititu. Era berean, Zuzenbide pribatuko gaiak garrantzi gutxikoak dira. Hala ere, hitzarmenaren parte diren Estatuetan eraturiko adopzioen eragin juridikoen inguruko nazioarteko Zuzenbide pribatuko hainbat arau biltzen ditu.

1993 urteko Hagako Hitzarmena ezartzerako garaian hainbat datu aintzat hartzea ezinbestekoa dugu:

(1) *Aplikazio-eremu espaziala*: aldean artean aplikagarri den nazioarteko hitzarmena da. Soilik parte diren Estaturen artean izango da aplikagarri. 2012ko maiatzaren 13an 75 Estatu ziren hitzarmen horren parte.

(2) *Aplikazio-eremu materiala*: Hitzarmen honen aplikazio-eremu materialean hainbat aldagai ezberdin zehaztu behar ditugu: lehenik eta behin, kidetasun lotura erakusten duten adopzioetan izango da aplikagarri; bigarrenik, adingabea Estatu kide batetatik beste Estatu kide batetara mugitzen den kasu guztietan izango da hitzarmena aplikagarri (adopzio transnazionala); hirugarrenik, hitzarmenak ez du nazioarteko adopzio bat eratzeko, eraldatzeko, bihurtzeko, berrikusteko eta baliogabetzeko nazioarteko eskuduntza judizialik, ezta nazioarteko adopzioari aplikagarri zaion legea arautzeko ere ez. Gainera ezingo die adopzioa onartzen ez duten Estatu kideei adopzioa eratzera derrigortu, hauek beste tresna legalen bitartez babesten baitituzte, *kafala* besteak beste. Azkenik, 1993ko Hagako Hitzarmenak eskuduntza duen autoritatearen adopzioa eratu aurretiko fase administratiboa besterik ez du arautzen, baita hitzarmen horren arabera eraturiko adopzioen lurraldez kanpoko baliagarritasuna eta eragin juridikoak ere.

(3) *Aplikazio-eremu pertsonala*: Hainbat datu zehaztu behar dira: a) Hitzarmena adoptatu eta adoptatzaileen ohiko bizilekua parte diren Estatu batean dagoenean izango da aplikagarri, beti ere bi Estatu ezberdin direnean. b) Hitzarmena soilik adingabeen adopzioetan izango da aplikagarri (3. art). c) Adoptatzailea zein izanda ere aplikagarri izango da, hau da, sexu ezberdin edo bereko bikoteak, ezkongabeak, edota izatezko bikoteak.

(4) *Denborazko aplikazio-eremua*: Atzeraeragina ez duen Hitzarmena da (41. art). Adopzio eskaera egin baino lehenago jatorrizko Estatua edota hartzailea Hitzarmeneko parte bada soilik izango da aplikagarri.

## 1. Nazioarteko adopzioak eta 1993ko Hagako Hitzarmena. Nazioarteko adopzio aurreko administrazio-prozedura

Antolakuntzari erreparatuz gero nazioarteko adopzio aurreko administrazio-prozedurari dagokionean honakoa baieztatu dezakegu:

(1) *Administrazio-eskuduntzen banaketa*: Hagako Hitzarmenak Estatu kideen administrazio-autoritateen arteko eskumen banaketa sistema du: a) Estatu hartzaileko autoritateek adoptatzaileen egokitzapen juridiko eta psiko-sozialaren inguruko txostena sortu beharko dute, jatorrizko Estatuko Autoritate Zentralera igorri (15. art). b) Jatorrizko Estatuko autoritateek adoptatuaren egokitzapen juridiko eta psiko-sozialaren inguruko txostena sortu beharko dute (16. art) eta adingabearen kokapen proposamen zehatz batekin eta beharrezko baimenekin (16.2 art) batera Autoritate Zentralera igorriko dute. c) Autoritateen arteko akordio bat eman behar da bi aldeek adopzio aurrera egin behar duela agertuz (17. art). d) Akordio ematen bada, jatorrizko Estatuko autoritateek adingabea guraso adoptatzaileen esku uzten dute, eta jatorrizko Estatutik irteten uzten da. e) Haurren adopzioa jatorrizko Estatu, zein Estatu hartzailean eratu daiteke, baina honako hau ez da Hagako Hitzarmenaren bitartez arautzen.

(2) *Autoritate zentralak*: Parte diren Estatuak autoritate zentralak izendatzen dituzte. Espainiako Estatuan 21 autoritate zentral aurki ditzakegu, eta hauek lankidetzan, informazio, zaintza eta gainerako funtzioak hartzen dituzte bere gain. Bestalde, Hagako Hitzarmenak adopzio independenteak onartzen ditu: pertsona fisikoen, abokatuak besteak beste, esku-



hartzearen bitartez eraturiko adopzioak, baita kreditaturik ez dauden organismoek eraturikoak ere, beti ere Hagako Hitzarmeneko 22.2 artikuluko baldintzak betez gero.

## 2. Nazioarteko adopzioak eta 1993ko Hagako Hitzarmena. Nazioarteko adopzioaren lurraldez kanpoko baliagarritasuna

1993ko Hagako Hitzarmenak bertan jasotako prozeduraren bitartez eraturiko adopzioen lurraldez kanpoko baliagarritasun inguruko sistema onuragarria du. Zentzu honetan, Estatu kideko autoritate batek Hitzarmenarekin bat egiten duen adopzio bat bezala izendatuz gero, gainerako Estatu kideetan eskubide osoarekin onartua izango da (23.1 art).

Ildo honetatik jarraituz, arretaz aztertzeke hainbat gauza ere baditugu:

(1) *Hitzarmenarekin bat egiten duen adopzio baten eragin eratzaiilea*: Hitzarmenarekin bat egiten duela ziurtatzen duen adopzioa Estatu parte guztientzat existitu eta baliagarri izango da (erabateko zuzenbidea ezagutuko zaio).

(2) *Erabateko zuzenbidea onartzearen espresioaren esanahia*: adopzio batek erabateko zuzenbide osoa duela esateak exequatur prozedura edo adopzio erregistro baten beharra ez dagoela esan nahi du. Aitzitik, ez du onarpen automatiko bat dagoela esan nahi, Hitzarmenean agerturiko ukapen kausak emanez gero, onarpen hori ezeztatu daiteke.

(3) *Adopzioaren lurraldez kanpoko baliagarritasunaren intzidente-kontrola 1993ko Hagako Hitzarmenean*: Adopzioaren baliagarritasuna edo existentzia eskatzen zaion Estatu parte batetako autoritateak (judizial, administratibo edo bestelakoa), bere kabuz baloratuko du adopzioa Hitzarmenean agerturiko arauarekin bat egiten duen ala ez ziurtatzeko.

(4) *Adopzio Hagako Hitzarmenarekin izandako adostasunaren ziurtagiriaren igorpena*: Adopzio eratzea Hagako Hitzarmenarekin bat egiten duenaren ziurtagiriaren igorpena autoritate publiko baten eskumena da (Espainian agertu ditugun autoritate zentralak izango dira).

(5) *Adopzioa Hagako Hitzarmenarekin izandako adostasunaren deuseztatzeke arrazoiak*: Adostasun hori ukatzeko arrazoiak honakoak izan daitezke:

- a) Adopzioa hitzarmenarekin bat egiten ez duela ziurtatzea
- b) Eskaturiko Estatu kidearen orden publikoaren aurkako adopzioa izatea, haurraren interes gorena kontuan izanik
- c) 1993ko Hagako Hitzarmena izan arren, lehentasunezko akordioetan barneraturiko baldintzak

(6) *Adopzioaren ezagutzagatik eratorritako eraginak Estatu kideetan*: Adopzioaren ezagutza Hagako Hitzarmenaren arabera hainbat aspektu juridiko minimo betetzen ditu:

- a) Haurra eta bere adopzio-gurasoen arteko filiazio loturaren existentzia eta baliagarritasuna (26.1 artikulua).
- b) Adopzio-gurasoen erantzukizuna seme-alabarekiko (26.1.b artikulua).
- c) Haurra eta bere guraso biologikoen artean egon litekeen filiazio loturaren haus-tura.



## VII. Atzerritar autoritateen aurrean eraturiko adopzioen baliagarritasuna Espainian. Atzerritar adopzioen baliagarritasuna: 1993ko Hagako Hitzarmenaren araubidea

### 1. Atzerritar adopzioen eraginak Espainian

*Erregimen aniztasuna:* Atzerritar autoritate baten aurrean eraturiko adopzioa Espainian eragin juridikoa izateko hiru multzo legal ezberdinetan biltzen diren arau eta legerien bitartez emango da (Nazioarteko Adopzio Legeko 25. art):

- Spainia beste herrialdeekin sinaturiko hainbat aldeko Hitzarmen
- Barne produkzioko erregimena Kode Zibileko 9.5 artikularen bitartez osatua dagoena
- 1993ko Hagako Hitzarmenean bilduriko erregimen zehatza

**Nazioarteko Adopzio Legeko 25. artikulua:** *Normas internacionales. La adopción constituida por autoridades extranjeras será reconocida en España con arreglo a lo establecido en los Tratados y Convenios internacionales y otras normas de origen internacional en vigor para España, y, en especial, con arreglo al Convenio de La Haya de 29 de mayo de 1993, relativo a la protección del niño y a la cooperación en materia de adopción internacional. Tales normas prevalecerán, en todo caso, sobre las reglas contenidas en esta Ley.*

### 2. Atzerritar adopzioen eragina Espainian. Nazioarteko Aldeko Hitzarmenak

Adopzioei dagokienean, Espainian aplikagarri diren aldeko zenbait hitzarmenek atzerritar ebazpenen baliagarritasuna arautzen dute. Honako hitzarmen hauek Hagako Hitzarmenagatik ez dira indargabetu. Besteak beste honakoak ditugu:

- 1983ko Azaroaren 14ko Hitzarmen espainiar-alemana
- 1984ko Otsailaren 17ko Hitzarmen espainiar-austriarra
- 1973ko Martxoaren 22ko Hitzarmen espainiar-italiarra
- 1969ko Maiatzaren 28ko Hitzarmen espainiar-frantsesa
- 1989ko Apirilaren 13ko Hitzarmen espainiar-brasildarra
- 1987ko Azaroaren 4ko Hitzarmen espainiar-uruguaiarra
- 2001eko Irailaren 24ko Hitzarmen espainiar-tunisiarra

Atzerritar autoritateek eraturiko nazioarteko adopzioak Espainian ezagutzeko beste tresna aztertuz gero, honakoak aipatzea beharrezkoa dugu:

- Adopzio inguruko 2001eko Urriaren 29ko Hitzarmen espainiar-boliviarra
- 2002ko Azaroaren 12ko nazioarteko adopzio inguruko Espainia eta Filipinaren arteko Protokoloa
- 2007ko Abenduaren 5ean Hanoi-n Espainiar erreinu eta Vietnamgo Errepublikaren Sozialistaren artean eginiko lankidetzaren Hitzarmena
- Errumania, Peru, Kolonbia, Ecuador, Bolivia, eta organismo, Ministerio eta autoritateen arteko hainbat aldeko protokolo.

### 3. Atzerritar adopzioen eragina Espainian. Barne produkzioko araubidea

Atzerritar autoritateek eraturiko adopzioen eragin juridikoak Espainian Nazioarteko Adopzio Legeko II. Kapituluan arauturik geratzen dira. Besteak beste honako datu hauek nabarmendu ditzakegu:

(1) *Intzidente-kontrola:* Atzerritar autoritateak eraturiko adopzioaren aurre kontrolik, ezta aurre homologazio tramiterik ere ez dago. Nazioarteko Adopzio Legean jasota dagoen kontrola intzidente-kontrol bat da, alegia, hitzarmeneko 26. artikuluan jasota geratzen diren baldintzen betetzea eta berrikuspena kontrolatzen ditu.



**Nazioarteko Adopzio Legeko 26. artikulua:** *Requisitos para la validez en España de adopciones constituidas por autoridades extranjeras en defecto de normas internacionales. 1. En defecto de Tratados y Convenios internacionales y otras normas de origen internacional en vigor para España que resulten aplicables, la adopción constituida por autoridades extranjeras será reconocida en España como adopción si se cumplen los siguientes requisitos: 1.º Que haya sido constituida por autoridad extranjera competente. La adopción debe haberse constituido por autoridad pública extranjera, sea o no judicial. Se considera que la autoridad extranjera que constituyó la adopción es internacionalmente competente si se respetaron, en la constitución de la adopción, los foros recogidos en su propio Derecho. No obstante lo establecido en la regla anterior, en el caso en que la adopción no presente conexiones razonables de origen, de antecedentes familiares o de otros órdenes similares con el país cuya autoridad haya constituido la adopción, se estimará que la autoridad extranjera carecía de competencia internacional. 2.º Que se haya constituido con arreglo a la ley o leyes estatales designadas por las normas de conflicto del país del que depende la autoridad extranjera que constituyó la adopción. A tal efecto, si la autoridad española comprueba que no se ha prestado alguna declaración de voluntad o no se ha manifestado el consentimiento exigido por la ley extranjera reguladora de la constitución de la adopción, dicho requisito podrá ser completado en España, ante las autoridades competentes españolas con arreglo a los criterios contenidos en esta Ley, o ante cualquier otra autoridad extranjera competente. 2. Cuando el adoptante o el adoptado sea español, la adopción constituida por autoridad extranjera debe surtir los efectos jurídicos que se corresponden, de modo sustancial, con los efectos de la adopción regulada en Derecho español. Será irrelevante el nombre legal de la institución en el Derecho extranjero. En particular, las autoridades españolas controlarán que la adopción constituida por autoridad extranjera produzca la extinción de vínculos jurídicos sustanciales entre el adoptado y su familia anterior, que haga surgir los mismos vínculos de filiación que los de la filiación por naturaleza y que sea irrevocable por los adoptantes. Cuando la ley extranjera admita que la adopción constituida a su amparo pueda ser revocada por el adoptante, será requisito indispensable que éste, antes del traslado del menor a España, renuncie al ejercicio de la facultad de revocarla. La renuncia deberá formalizarse en documento público o mediante comparecencia ante el Encargado del Registro Civil. 3. Cuando el adoptante sea español y residente en España, la Entidad Pública española competente deberá declarar su idoneidad previamente a la constitución de la adopción por el órgano competente extranjero. No se exigirá dicha declaración de idoneidad en los casos en los que de haberse constituido la adopción en España no se hubiera requerido la misma. 4. Si el adoptando fuera español en el momento de constitución de la adopción ante la autoridad extranjera competente, será necesario el consentimiento de la Entidad Pública correspondiente a la última residencia del adoptando en España. 5. El documento en el que conste la adopción constituida ante autoridad extranjera deberá reunir los requisitos formales de autenticidad consistentes en la legalización o apostilla y en la traducción a idioma oficial español. Se exceptúan los documentos eximidos de legalización o traducción en virtud de otras normas vigentes.*

**Nazioarteko Adopzio Legeko 27. artikulua:** *Control de la validez de la adopción constituida por autoridad extranjera. La autoridad pública española ante la que se suscite la cuestión de la validez de una adopción constituida por autoridad extranjera, y en especial, el Encargado del Registro Civil en el que se inste la inscripción de la adopción constituida en el extranjero, controlará, incidentalmente, la validez de dicha adopción en España con arreglo a las normas contenidas en esta Ley.*

**Hots,** Atzerritar autoritate batek eraturiko adopzio balioesteko, Espainiako autoritateak adopzio horren baliagarritasun Espainian intzidentalki kontrolatuko du agerturiko 26 artikuluan oinarrituz.

(2) 26. artikulua estaltzen dituen atzerritar erabakiak: Arau horretan agerturiko baldintzak eratzearen bihurketa, eraldaketa edo baliogabetasuna zehazten den atzerritar erabaki, zein atzerritar autoritate publikoetan beharrezkoak eta aplikagarriak dira (28. art).

**Nazioarteko Adopzio Legeko 28. artikulua:** *Requisitos para la validez en España de decisiones extranjeras de conversión, modificación o nulidad de una adopción. Las decisiones de la autoridad pública extranjera en cuya virtud se establezca la conversión, modificación o nulidad de una adopción surtirán efectos legales en España con arreglo a las exigencias recogidas en el artículo 26 de esta Ley.*



## VIII. Adopzio loturen eraginak

### 1. Espainian baliagarri den nazioarteko adopzioen eragin juridikoak: 1996ko Hagako Hitzarmena

Nazioarteko Adopzio Legeko 18-24 edo 25-31 artikuluen, edota Espainian indarrean dauden nazioarteko tresna juridikoen arabera Espainian baliagarri diren nazioarteko adopzioen eragin juridikoak 1996ko urriaren 19ko Hagako Hitzarmena oinarri izanik finkatzen dira. Orokorrean, hitzarmen honek haur adoptatuaren ohiko bizilekuko herrialdeko legea aplikatzera bideratzen du (15 eta 16 art).

### 2. Beste eragin legalen artean ondorengoak nabarmendu genitzake

(1) *Elikagaiak adoptaturen mesedetan*: Elikagai betebeharrei aplikagarri zaien legen inguruko 2007ko azaroaren 23ko Hagako Protokoloa.

(2) *Oinordetza eraginak adoptatuaren mesedetan*: Heriotzaren uneko eskubidesorrazlearen (*kausantea*) lege nazionala izango da aplikagarri (9.8 art).

(3) *Adoptatuaren izena*: Adoptatua izan den seme-alabaren lege nazionalak arautuko du. Izenari aplikagarri zaion legearen inguruko 1980ko irailaren 5eko Munich-eko Hitzarmena.

(4) *Adoptatuaren nazionalitatea*: Adoptatua espainiar nazionalitatea izateko Kode Zibileko 19. artikulua bitartez arautuko da. Adopzio osoentzako Nazioarteko Adopzio Legeko 26 artikulua espainiar nazionalitatea eskuratzen duela agertzen du. Adopzio sinpletan ordea, adoptatuak ez dute nazionalitate bereganatzen.

(5) *Utziezina diren haurren eskubideak*: 1989ko Azaroaren 20ean New York-en egindako Haurren Eskubideen inguruko Nazio Batuen Hitzarmenean jasota dagoenagatik arautzen dira.

(6) *Adopzioaren izen ematea Espainiako Erregistro Zibilean*: Atzerrian eraturiko adopzioak Espainiako Erregistro Zibilean izena emateko, erregistroko arduradunak Kode Zibileko 9.5 artikuluan biltzen diren baldintzen elkarrekotasuna zehaztu beharko du. Kode Zibileko 9.5 artikulua nazioarteko Zuzenbide pribatura zuzentzen gaitu, eta honela, hitzarmeneko 27. artikulua 26. artikuluan biltzen diren betebeharrak eta eskakizunen intzidentekontrol sistema biltzen du. Modu honetan, Espainiako Erregistro Zibileko arduradunak, adopzioaren izen ematea hasi aurretik, atzeritar adopzioa Espainian eragina izango duela kreditatu beharko du.